

ZENBAKI ERROMATARRAK

Zenbaki erromatarrak letra larriz adierazten dira. Letra bakoitzak balio bat du.

I	V	X	L	C	D	M
1	5	10	50	100	500	1.000



Zenbakiak idazteko honako arau hauek betetzen dira:

ERREPIKATZEAREN ARAUA

I, X, C eta M letra bakarrik idazten dira bi edo hiru bider jarraian.



$$\begin{array}{ll} III = 3 & XX = 20 \\ CCC = 300 & MM = 2.000 \end{array}$$

BATUKETAREN ARAUA

Letra bat balio bera edo handiagoa duen beste letra baten eskuinean jarritz gero, haien balioak batu egiten dira.



$$\begin{array}{l} XV = 10 + 5 = 15 \\ LX = 50 + 10 = 60 \end{array}$$

KENKETAREN ARAUA

I, X eta C letrak, balio handiagoko beste letra baten ezkerrean idatziz gero, beren balioa kentzen diote eskuinekoari.



$$\begin{array}{l} IV = 5 - 1 = 4 \\ CM = 1.000 - 100 = 900 \end{array}$$

BIDERKETAREN ARAUA

Letra baten edo hainbaten gaineko marraz zenbakia 1.000ekin biderkatuta geratzen dela adierazten du.



$$\begin{array}{l} \overline{V} = 5 \times 1.000 = 5.000 \\ \overline{XX} = 20 \times 1.000 = 20.000 \end{array}$$

Letra balio handiagoko bi letra berdinen artean badago, eskuinean duenari kenduko dio haren balioa.

$$MCM = 1.000 + 900 = 1.900$$

I letra soilik V eta X letren aurretik idatz daiteke; X letra, soilik L eta C letren aurretik; eta C letra, soilik D eta M letren aurretik.

$$IV=4 \quad IX=9 \quad XL=40 \quad CM=900$$

1) Zer urtetan eraiki zituzten honako monumentu hauek?

PRAGA



MCCCLVII

BILBAO



MDX

BURGOS



MCCXXI

SANTIAGO



MCCXI

2) Lotu zenbakiak:



DXII

CXLV

MCCXXXII

MCMLXXVIII

XXXIII

VDCCXII

XVCLX

LVIII

MMMDLXVII

CCLXXVI

33

58

145

276

512

1.232

1978

3.567

5.712

15.160



3) Ordenatu honako erromatar zenbaki hauek txikitik handira:

CLXIX

CLXXVI

CXLIX

CXLVII



4) Idatzi zenbaki erromatar hauek zenbaki-sistema hamartarrean:

XV		LV	
XXIX		XLV	
CXV		CCVI	
CCXVII		CCCLXXVII	
DCCXII		MMMCCC	
MMCDLXV		V̄MDCLVII	

5) Idatzi zenbaki hauek zenbaki-sistema erromatarra erabiliz:

26		37	
42		48	
59		49	
183		457	
532		778	
1.787		3.214	